

## Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## Titivillus

**OXFORD, 1285.** Johannes Wallensis frantziskotarraren *Tractatus de Penitentia* lanean “Titivillus” izena idatzita agertu zen lehenengoz. “*Fragmina verborum titivillus colligit borum / Quibus die mille vicibus se sarcinat illè*”, zioen galestarraren tes-tuak; alegia, Titivillusek hitz hauen zatiak biltzen ditu, eta horiekin mila aldiz betetzen du bere zakua, gutxi gorabehera itzulita. Hurrengo mendearen hasieran Petrus Palude Jerusalemgo patriarkak ere deabrutxo berriaren izena aipatzen du.

Titivillusek bere zakua egunera mila aldiz bete behar zuen monje kopiatzaileek idaztean egiten zituzten akatsekin. Ondoren, Titivillusek Deabruari akatsen berri eman behar zion. Deabruak akatsa eta akatsaren egilea liburu batean jasotzen zituen, gero, Azken Judizioko egunean irakurtzeko.

Monasterioko egunerokotasun errepikakorrean eta, bereziki, izkribuak eskuz kopiatzeko lanean arreta ez galtzea zaila zen monjeentzat. Ohikoak —eta ulertzeokoak— ziren, beraz, akatsak. Baina arreta galtzea bekatua zen. Horregatik Titivillusen mehatxua asmatu zuten, ahalik eta errakuntza gutxien egiteko motibazio moduan.

Printzipioz, ez zirudien Titivillusen lana gaitzegia zenik. 1325 eta 1328 urteen artean idatzitako *The Cloisters Manuscripten*, esaterako, hamabost santuren izenak idaztea ahaztu zitzaizen eta beste hogeita hamarren izenetan akatsak zeuden. Zakukada bete akats idazki bakarrean. Baina Titivillusen presentziak eragina izan zuen, eta monje izutuak gero eta errakuntza gutxiago egiten hasi ziren.

Titivillusentzat gero eta zailagoa zen eguneko lana betetzea eta XV. mendean bere lan metodoa aldatu zuen: ez zituen soilik akatsak bilduko, akatsak sortzen hasiko zen. Plana habian jarri eta berehala aurreko mendeetako bekatu kopuru bera jasotzen zuen Deabruari eramateko. Beste modu batera esanda, unibertitateen



**Erdi Aroko idazlariek egindako akatsekin Titivillus izeneko deabruak (ezkerrean) mila zaku bete behar zituen egunero.**

gorakada zela-eta, idazlariak lanez gainezka zebiltzan, eta baldintza horietan akatsen zakua nahigabe gizentzen zen. Baina erantzukizuna ez zen kopiatzaileena; akatsen egilea Titivillus bera zen. Modu horretan, etsai izan zena idazlarien zaindaria bihurtu zen; patroiak errua beregain hartzen zuen.

Errenazimentuaren argia piztearekin bat, Titivillus izena itzaltzen hasi zen. Baina itzalean lanean jarraitu zuen. Garai berrietara moldatu eta inprentako akatsak egiten ikasi zuen berehala. 1561ean argitaratutako *Anatomy of the Mass* liburuak 172 orrialde zituen berez; bada, beste hamabost erantsi behar izan zizkieten hutsen zerrenda biltzeko.

Gaur egun lan handia egiten du oraindik; *Oxford English Dictionary* hiztegi ezagunak hainbat akats tipografiko izan ohi ditu bere ediziotan, baina diotenez azken 50 urtetako edizio guzti-guztietan, Titivillus aipatzen den orrialdean akats bana topa daiteke. Zuzentzaile automatikoen garaian, nola da posible orrialde honetan (adibidez) akats tipografikoak egotea? Inoiz zeuen buruari galdera hauxe egin badiozue, orain badakizue errua norena den. ■

## ARRASTOAK

## FRANTZIARA BIDAIA

virtuala egiteko aukera eskaintzen du web gune berri batek. Frantziako Kultura Ministerioak [www.culture.gouv.fr/culture/arcnat/fr](http://www.culture.gouv.fr/culture/arcnat/fr) orria egin du. Bertan estatu horretako gune arkeologiko garrantzitsuenen berri ematen dute.

Informazioa ordena kronologikoan —Historiaurrea, Protohistoria, Antzinaroa eta Erdi Aroa— bildu eta eremu geografikotan banatu dute. Bidaia virtualean besteak beste Lascaux-eko haitzuloko labar pinturak, Lutezia erromatarraren arrastoak —egungo Parisekin lotura dutenak— edo Saint Germain d’Auxerreko abate-txe beneditarra bisita daitezke.

Indusketa lanen nondik norakoak xehetasun handiz jaso dituzte, baita aurkikuntza berrienak ere. Gainera, argazkiak, ilustrazioak, mapak eta hiru dimentsiotako irudiak ipini dituzte lagungarri.



Frantziako Kultura Ministerioak egin berri duen web gunean, besteak beste, Lascaux-eko labarretako pinturak ikus daitezke.